

ERNEST, JAZZAREN MAITALE

— Harkaitz Cano —

Mila jostorratz distiratsu urdinek zulatzen dute gaur gau beltza, eta mila sentimentuek nire oroimena. Ezen, gaua gau den artean bait dute kriseiluek iratxeki beharra ilunarekin batera. Gris eta serio daude gaur karrikak; gris eta serio jendearen aurpegi zurbilak. Ez da nabari zeruetan kobrezko morerik; lanbro garden bat soilik eta kaio baten hegaldatze neket-sua 29. kaleko magnolioetan gaindi. Egunsenti grisbera izango dugu biharkoa. Berandu iritsi naiz gaur ere Club-era eta trago bakar batez edan behar izan dut mostradorean prest neukan "Four Roses" kopatxoa. Jendea zain zegoen. Gabardina erantzi eta ene sonbreirua eskegi dut kamerinoan. Jimmy aurkezpena egiten hasia zen. Saxoa atera dut kontu handiz. Distirati dago, gaur gozo eta biribil dagoen ilargiaren gisan. Gozo eta biribil. Eszenatokia abiatu naiz, eta ni sartzearekin batera amatatu dira argiak. Ilunpean, Dunhill zigarroen kea bakarrik da zuri.

Nire ahoak saxoaren muturra musukatzean isildu dira bapatean Club-eko zurrumuruak. Ilargi betea dago eta Club-eko klaraboiatik dakuskit gauaren beltza apaintzen duten konstelazio eta izar ezdeusagoak. Ilargia ere bai. Azken batean, zer da ba ilargia...? gauerdiko ispilua baizik ez. Bizitzaren bide motzaren testigu: atzo larrosa, gaur lili ximel. Arestian akituriko amodioetan beti present dagoen astroa. Txaloak entzun ditut. Gutxi





uste dute ene miresle hauek, gaur gauekoa nire azken ekitaldia izango dela. Gizarajo hauek ez dakite nire saxoaren nigarra dela nire desolamendua; jazzaren malenkonia nire malura... Nork agindu ote zidan niri maitemintzea? nork...? Ez du ilargiak erantzuten. Ez dute izarrek erantzuten. Mutu dago gaua.

Saioa bukatzean, ikusleek zutitu eta gogoz txalotu naute. Irribarre faltsu batean ezkutatu naiz eta ezker eskuaz agurtu dut jendea. Betirako geldituko da nire oroimenean une hau: krisilu berdeak salaren alde banatan, aulki gorri-lunak eta jendea mahai borobilen inguruan zutiturik txaloka. Eszenatokitik atera eta kamerinora zuzendu naiz. Ez dago lorarik. Jimmy-k aldiz, bere promesa bete du eta sobre gorri baten utzi du nire partea. Gabardina eskuratu, saxoa maletan sartu eta presaka atera naiz Club-etik. Nahiago dut inori agurrik ez egin, jakin ere, bai bait dakit, ezin izango nukeela horrelakorik jasan. Atea herstera nindoala, Jimmy-k hotsegin dit.

- Beraz, ba zoaz ... -baietz egin diot buruaz. Besarkatu nau eta begietara begiratu dit gero-Zorte on Ernest.

- Agur Jimmy. Ez naiz berehalakoan zutaz ahaztuko. -Sonbreirua bururatu eta hileta pausoz urrundu naiz. Kalearen amaierara heltzean atzera begiratu dut. Jimmy-k oraindik atean jarraitzen zuen. Besoaz keinu bat egin diot eta doi-doi eutsi diet malkoei. "Ez nigar egin, isuriak diren malkoek ez dute itzulbiderik" diote gauaren mila eta zortzirehun begiek ahobatez oihuka.

Ez dago arimarik kaleetan. Ez da harritzekoa, izan ere, kalendarioaren orrietan galduriko egun hau osteguna da menturaz eta nik hartu behar dudana ez du jende askok hartuko ... Egun euritsua da gaurkoa, eta jakina da egun euritsuek badutela zer edo zer, hitzez deskribatu ezin daitekeena. Zerbait berezia oso, gainerako egunek ez dutena. Ez dakit nola esan ...

Haize hutsal batek geldiro astintzen ditu kaleetan zehar hostoak, erremediorik gabe paraje ezezagunetara barreatuz. "Fleming-eneraino heltzean, geratu egin naiz. Isiltasuna egin da nire pausoen etenarekin batera: haizearen firifiri sakonak apenas hauts dezake isiltasun hutsaren oihua. Eurria hasten du berriz; lauso. Gaur oraindik inbiria ematen didate zerua igarotzen duten kaio bakanez.

Amodioaren lilura oroitu dut une batez. Zure ezpainen musika ixila. Betikotasunaren jabe ziren begien distira. Euri-lanbroa nagusi da *iroan eta zero zolan, lainoek izarren lotsa mozorrotu dute. Amets gozoetan gaindi, lo daude oraindik tximeleta zuriak.

“Bai, Ernesten izenean. Mila esker andereino”. Estazioara heldu naizenean, agure bat ikusi dut bankuan eserita, ezker eskua kokotzean, egunkariko eskelak irakurtzen.

- Hau ere bai. Jean Paul, larogitasei urte ... koño hi! badizkik urteak ere ... Ikusten duk gazte? nire herrian egunero hiltzen duk norbait. Ez uste gero, beste herrietan hori gertatzen denik ...!

- Bai horixe. Denoi iristen zaigu ordua noizpait. Gazteak ere asko hiltzen dira azken boladan ...

- Bai, bai, aizu! gazteak asko, baina zaharrak zaharrak denak ...!

Narrow Street-eko don Alexander medikuak esaten zuena otu zait: “Gazteek seguratzarrik ez eta zaharrek, eskaporik ez”. Don Alexander medikuari parekatzeko moduko filosofo gutxi jaioko zen historian. Ni ez naiz ondo oroitzen, baina nire amonak dioenez, aurpegia oso itsusia izanagatik, ez zuen sekula ahazten bere solapako larrosa gorria eta beti zituen garbi bere zapata zuriak. Tipo bitxia zen, diosala onekoa oso, filosofo guztiak bezalaxe.

Azken abisua eman dute bozgorailuetatik. Pena eman dit elkarrizketa ezin jarraitzeak, ez dut sekula gehiago agure hau ikusiko, baina ezin dut trena galdu. Europa nire zain dut. Ziztu luze bat eta trenaren joanak gogora arazi dit banoala betirako. Be ..., ti ..., ra ..., ko ..., be, ti, ra, ko, beti-ra-ko, betirako, betirakobetirakobetirakobetirakobetirako...

Ihesi doaz tximeleta zuriak argitasunera

Segundu gutxi barru kezko kortina mehe bat geratzen zen trenbide bustiaren gainean. Telefono poste errietan enara bakanen batek eusten zion oraindik bereari. Eta estazioa atzera uztean, zirrara berezi bat sentitu dut gorputz osoan. Ez da hosto goiztarren nigar etsipenik jada somatzen. Ezin izan diet malkoei eutsi. Atzean geratzen ziren betirako udazken lanbroak, atzean betirako iragan ilun baten aztarna lainotuak. Zain dut etorkizun are ilunago bat. Azken begiradan, antzara bat ikusi dut zero mugetan,

-munduaren amaieran kasik- pausalekurik gabeko itsaso infinituruntz hegaka lauso.

Laurak estraineko aldiz musukatu nindueneko oroitu dut eta gero, gogoratu naiz nola kaobazko eskritoirean neukan dirua hartu eta aztarnarik utzi gabe ihes egin zuen, euriak -gaur lez- leihoak talkatzen zituen egun batez. Jimmy-ren hitzek kolpatu didate gero burua: “Ez kezkatu. Aurkituko duk beste bat ...”

Ez. Ez dut sekula aurkituko. Egunduean maitasunaren brisarak laztantzen ninduela uste izan banuen ere, nik, ilargipeko jazzak dut maitale bakar.

Saxo batek malenkoniaren eguzkia piztu du. Ezen eta, gaua gau den artean bait dute krisieluek iratxeki beharra ilunarekin batera.

Hegaz darraite tximeletek, beren bizitzak agortuz, sekula inora iritsi gabe. Baina hegaz hala ere. ○

Harkaitz Cano idazle goiztiarra da. ROCK PLANETA deituriko ipuinarekin 10 urte zituela lortu zuen lehen saria. Orain, 17 urte baizik ez, U.B.I. ikasketak egiten ari da. Eusko Jaurlaritzako URRUZUNO saria lortu du poesiaren arloan, ZUMARRAGAKO UDALAREN SARIA ipuinetan, GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA ipuin eta poesian, KOLDO MITXELENA saria ipuin, poesia eta bertsoetan, “IMAGINATE EUSKADI” Central-Hispano bankuetxearen saria poesian eta MAI KARMEN ALTZUETA ipuinean. IRUN HIRIA poesia lehiaketan finalista gertatu zen.